

# ***Uztaro*: ingelesez ere bai. Ehun zenbaki eta gero, eztabaidarako proposamena**

**Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga**  
Gaur Egungo Historian katedraduna, UPV-EHU  
Ikerketarako, talde kontsolidatuaren taldeburua. IT-658-13 ([www.prosoparlam.org](http://www.prosoparlam.org))

Lehendabizi zorionik beroenak *Uztaroko* zuzendari eta partaide guztiei. Azkenik, Giza eta Gizarte Zientzietako ikerketak argitaratzeko aldizkari zientifikoa euskaraz sendo ageri delako. *Historia eta Gizarte Zientzien Urtekariaren* bi aleren eragile izan nintzenez gero, (1981-1982) badakit ondo jakin ere, egin duzuen handia dela. Euskal Komunitate Zientifikoa duela berrogei urtekoarekin parekatuz gero, zabaldu eta sendotu egin dugu guztion artean eta *Uztaro* horren islatzat har dezakegu. Baina agian oraindik orain zenbaki kritikora iritsi gabe gaudela iruditzen zait. Gure komunitatea oso murrizta da. Historiaren eremutik pentsatzen ari naiz. *Kondaira* aldizkaria eta beste batzuk hor ditugu, baina euskaraz eginiko ekarpenak, garai batean Koldo Izagirrek adierazi bezala, euskara da eta ez besterik. Nik neuk badakit jakin *Uztarok* hori gainditu duela, baina oraindik ez erabat, eta uste hori gainditzea, ez euskal komunitatean, komunitate zientifikoro korrean baizik, da gure benetako erronka.

Aurtengo abenduan, 250 urte betetzen dira hil zela Manuel Larramendi, Salamancako Unibertsitateko irakasle ezaguna bere garaian (1724-1730). XVIII. mendearen lehen erdian, euskaldunon nazioa, nazio kultuen zerrendan sartzeko, euskal gramatika eta hiztegia argitaratu zituen (1728-1745). Frogatua zegoen jadanik erbesteari begira, nazio kultua zela euskaldunen nazioa, baina tamalez euskarazko produkzioa, irakurketa eta erabilera ez zen ohikoa bihurtu gure herrian. Hala ere, ekimena eta helburua jarrita zeuden.

*Uztaro* aldizkariak publiko bati begira lan egin du, herri barruko euskaldunon zientzi aldizkari bezala. Apologiatik ekintzara jauzia egin du. Garai bateko hutsunea bete du. Baina zientziaren eremukoa izanik, beste esparru berri batzuk ere irabazi behar ditu.

Horregatik etorkizunari begira, *Uztaro* aldizkariak bi publikoen (barrukoa eta erbestekoa) egarria eta premia betetzeko, aldizkariaren edukiak hizkuntz zabal batean hedatzea ere proposatzen dut. Horretarako, hasieran urtekari bat ingelesez argitaratu, urteko artikulua mamitsuenak ingelesera itzuliaz. Giza eta Gizarte Zientzietako beste aldizkari batzuekin ere partekatu ahal da egitasmoa. Urtekari horrek urte batzuen buruan goi-mailako indexazioetan (Scimago-Scopus, ERIH, JCR-Thompson) egon behar luke. Eta kasu horretan, gure euskarazko ikerketek, ingelesez, bigarren bizitza bat irabaziko lukete, jatorrizko hizkuntzaren garrantzia goratuz. Eta mamiari dagokionez, ebaluazio zabalagoa izanik, kritikaz gehiago jabetuz eta aberastuz, gure komunitate zientifikoa ere sendotuko litzateke. Egia esan, adibidez, antzeko zerbait egiten ari naiz, azken 35 urteotan, akademikoki eta zientifikoki lehiakorra izateko, euskarazko produktzioa nire egitekoaren zati bihurtuz, baina aldi berean beste hizkuntza batzuk ere erabiliz edukiak hedatzeko beste testuinguru batzuetan.

Zientiaren helburu da ekarpenak burutzea, ezagutzak emendatzea, onartuz ezagutza interpretazio-une baten adierazgarri dugula (W. Benjamin) eta kritikaren menpe izanik, ezagutzak trinkoagoak lortuko ditugu.

Proposamen honek bere bideragarritasun ekonomikoa behar luke. Hona proposatzen dudana: Euskal Herriko zientzi sistemako ikerketa-talde trinko bakoitzak ekarpen ekonomikoa bideratzea helburu honetarako, urtekaria ingelesez argitaratzeko. Ameriketako Estatu Batuetan egiteak bere abantaila du Europako beste leku batekin partekatuz.

Horrela, *Uztarok* ikusgarritasun berri bat lortuko luke. Bestalde, *Uztarok* bere kabuz goi-mailako indexazioetan sartzen ahalegindu beharko luke.